

Elisa Uriarte Elordi

*Ondarroa,
Bizkaia (1935)*

Aurkibidea

Biografia



1935ean jaio zen Erreterria auzoko Goiti baserrian. Aita zuen bertakoa; ama, berriz, Berriatuko Olabe baserrikoa. Hiru neba-arrebatan zaharrena. Gorozika auzoko eskolan ibili zen lehenbizi eta gero Ondarroan bertan, mojekin. Josten ikasten ere ibili zen. Berriatuko [Patxi Kalzakorta](#) rekin ezkondu zen.

Zintak

OND-050

• **Proiektua:** Ondarroako ahotsak

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data**: 2014-11-27
- **Iraupena**: 50 min
- **Euskarria**: Bideo digitala

OND-051

- **Proiektua**: Ondarroako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data**: 2015-01-07
- **Iraupena**: 18 min
- **Euskarria**: Bideo digitala

Pasarteak

1. Gorozikako eskola; "Señorita Concha"

- **Erref**: OND-050/002
- **Iraupena**: 0:02:28. **Hasi**: 00:02:30. **Bukatu**: 00:04:58
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>Bost urterekin hasi zen eskolan. Gorozika auzora joaten zen, ordu erdiko bidean. Egun guztirako joaten ziren, jatekoa "kapazoan" hartuta. "Señorita Concha" irakaslea; fama handia zuen eta Ondarroako gazteak ere hara joaten ziren. Hark alde egin zuenean, bertan "interina" egoten ziren zenbait irakasle pasa ziren Gorozikako eskolatik.</p>

Transkripzioa

- Eskola, pregunta ein biher dozu /einbizu/ eskoli?
 - Bai.
 - Bost urteaz hasi nitzen ni eskolan, zemat, ordu erdiko bidi-edo zan gitxi gorabehera.
 - Gorozika.
 - Gozika. Gozika barrixu, Gorozika, haraxe.
 - Berritxu?
 - Ez, ez...
 - Bueno Ondarru da.
 - Ondarru da, bai, bai, Ondarru, Gorozika izeneko barrixu. Eta, ordun, honek esan... aittek esan daben modun, maestri euen "Señorita Concha", baiñe zan gerra denporan desterrautaku-edo zan, famaue bera personi [... solteri]. Eta pentsaizu zelako kategorixi euken, Ondarruko gaztik be jun eitten zin haraxe; gu... Goititik juten nitzen modun, harek be beraana jun eitten zin. Baiñe denpora gitxi ein eban /eiban/. Nik ez dakit ba zemat urte eukiko... bostetik urte asko barik aldeko eban harek. Eta haraxe -ez dotsut esan- juten giñen egun guztireko haraxe, hartu kapazun patatak, esni, arrautzak eta gero hantxe, hantxe eskolan preparaten zan jateku eta hantxe pasetan gendun egune. Eta harek alde eban, ni... gero izen zan, ba, dana interinak-edo euki genduzen eskolan gero. Oseake, ze esango dotsut /esangotzut/ ba? Akordetan na ni umi euk... -hortxe baserrixen hospedetan zan, hortxe, oin bistan da hori etxi- umetxu bat euken, Doña Teresa gakon ixena, eta harek eukan gizona Ondarruko zerin, Ondarruko eskolan,

Zeledonio Arriolako eskolan euen. Andra-gizonak. Bera umiaz han egoten zan, eta hoixe. Eta gero beste interina bi edo hiru be bai pasau zin han egon nitzen denporan. Han egongo nitzen ni, ba, hara eta hona eta besti, asko ikesi barik, hamabi bat urtera arte [halakoxi] pentsaten dot egongo nintzela.

2. Eskolan oinarritzkoa ikasita, nahikoa

- **Erref:** OND-050/003
- **Iraupena:** 0:00:52. **Hasi:** 00:04:58. **Bukatu:** 00:05:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak

Laburpena:

Gorozikako eskola utzi eta Ondarroan bertan mojetan ibili zen, "esku-biharra" ikasten. Oinarritzko gauzak ikasi zituen. Baserrian beti lana egoten zen.

3. Bizikletan Ondarroara, josten ikastera

- **Erref:** OND-050/004
- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 00:05:50. **Bukatu:** 00:06:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak

Laburpena:

Josten ikasten hasi zen Ondarroan. Bizikletaz joaten zen. Orduan ohikoa zen bizikletan ibiltzea eta lasai ibiltzen ziren, gainera.

4. Arropak etxean jositakoak

- **Erref:** OND-050/007
- **Iraupena:** 0:00:45. **Hasi:** 00:12:38. **Bukatu:** 00:13:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak

Laburpena:

Izeko Emilik josten zizkion arropak. Josten ikasten ibili zenean, hango jostunarekin konpontzen ziren. Ez omen zuen askorik ikasi; oinarritzkoa.

5. Baserrian lan asko

- **Erref:** OND-050/009
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 00:13:52. **Bukatu:** 00:14:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Luzaroan ibili zen josten ikasten, baina ez zuen askorik josi etxean, baserrian bestelako lan asko egoten zelako. Ortuari asko zuten eta ama egunero joaten zen plazara. Baserrian egiten zituen lanak.

6. Garia eskuz jotzen zen, makinak etorri aurretik

- **Erref:** OND-050/010
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:14:55. **Bukatu:** 00:16:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Garia

Laburpena:

Sasoi batean, makinak iritsi aurretik, garia harriaren kontra jotzen zen garantzeko. Gero, makinarekin garbitu, eta alea eta lastoa banatu. Garia errotara nora eramaten zuten. Ateratako irinarekin etxean egiten zuten ogia. Berak ez ei du goserik ezagutu.

7. Gerra garaian Lekeitio aldera ihesi

- **Erref:** OND-050/011
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 00:16:20. **Bukatu:** 00:18:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

<p>Bi urte zituen gerra sasoian. Berak ez du oroitzen, baina tiroak botatzen zituztenei "kakati!" deiadar egiten omen zien, etxe atarira irtenda. Etxekoek ganaduen jatekoa gauez prestatzen zutela ere entzun izan du. Azkenean, alde egitea erabaki zuten. Trasteak astoan hartu eta Lekeitio aldeko baserri batera joan ziren.</p>

Transkripzioa

- Bueno, gerri... nik urte bi neukezen gerra denporan eta orduntxe gurin... alde ein gendun guk. Bueno, ni umi nitxan ta alde... Osea, horrek esan dabena, hortik tiruk botaten zittuenin, gure [etxe ondo], nik urten ein neban, urte biaz, eta eitten neban, badakizu, umik gaztetan zertu eitten dala, konturetu eitten dala molestaziñoie ta "Kakati!!!" eitten ei notsen diar, esaten osten /esatozten/, [...] urten ta hor tiruek botaten zittuenin. Eta gero hamen ez dakit ba nik zemat denporan horrek tirukin-ta bizi... Bai, nire gurasuk eta nire tia-ta, akordetan na, gabaz eitten ei xeben ordun – harek be gerran luze eon zin, kontizu, hor baserrixen–, gabaz eitten ei xeben ganajateku, ganauntzako jateku ta. Eta halako baten dezididu eingo zin aldeten eta Lekeitiora pasau. Astun hartu trastik, eta, honek esan dabena, Etxano baserrixen Asterrikatik behetik gora e, zera, Santa Katalinan bizi... bizitzi... Ez dakit, /eztai/ ba nik zemat denpora, baiñe han denporatxu ein izengo zan han bizi izeten, Santa Katalinan. Ez dakit /

eztaix/ badakizun Lekeition nun dauen, han portuan goixen.

- Bai, bai.

- Hantxe bixi izen giñen, bizi... ein giñen gu. [...] Eta ordun be jabonaduri eittea-ta bajetan ei zin hatxea, hatxetako ta... esaten eben e gure zerak. Nik neuk gogun ez dauket, baiñe Lekeition ba...

8. "Hirubedarra"; batzuetan hiru aldiz jorratu behar lurra

- **Erref:** OND-050/015
- **Iraupena:** 0:00:48. **Hasi:** 00:20:50. **Bukatu:** 00:21:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserría » Baserriko lanak » Lurra lantzea

Laburpena:

Artoa eta indiaba hartzen ziren baserrian. "Hirubedarra"; batzuetan hiru aldiz jorratu behar izaten zen lurra, belarra berriz irteten zelako.

9. Baserriko tresnak; aitzurra, sega, igitaia...

- **Erref:** OND-050/017
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 00:22:55. **Bukatu:** 00:24:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko tresnak

Laburpena:

Baserriko erremintak. Aitzurra, jorarako. Belarretan egiteko sega eta eskuarea. Igitaia, garia ebakitzeko. Iratara joan izan zen, laguntzera. Ira segarekin ebakitzen zen. Goldea. Uztarriak. Tresnetan aldaketa handia egon da. Lurra lantzeko goldea, area, alperra...

10. Debara edo Mutrikura autobusean, piperrak saltzera

- **Erref:** OND-050/019
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:26:08. **Bukatu:** 00:27:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserría » Baserriko lanak » Artoa
- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroztera

Laburpena:

Lehen piper asko hartzen zen eta ama Debara edo Mutrikura ere joaten zen saltzera. Piperrez betetako zakuekin Ondarroara astoan jaitsi eta han autobusa hartzen zuen. Berak lagundu izan zion amari. Artoa ere asko hartzen zen. Gero hura zuritu egin behar.

11. Arropak garbitzeko: xaboia eman eta askan astindu

- **Erref:** OND-050/025
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 00:34:46. **Bukatu:** 00:36:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

Laburpena:

Arropak garbitzea; etxean xaboia eman eta etxe ondoko askan astintzen zituzten. Siku zegoenean, etxe azpialdeko erreka joaten ziren. Lehenengo garbigailua etorri zenean, artean kanpoko askan jotzen zuten arropa. Xaboi-pastillak erabiltzen ziren. Berak ez du ezagutu sutako hautsarekin arropak garbitzea.

12. Neguko arropa garbitzera Erreterriako erreka

- **Erref:** OND-050/027
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:37:45. **Bukatu:** 00:38:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

Laburpena:

Irail edo urrian neguko arropak garbitzera Erreterriako erreka joaten ziren. Negurako prest edukitzeko.

13. Behar-beharrezko arropak bakarrik plantxatzen ziren

- **Erref:** OND-050/029
- **Iraupena:** 0:02:11. **Hasi:** 00:39:14. **Bukatu:** 00:41:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Arropak harraskan xaboiu eta kanpoko askan astintzen ziren. Ikatzezko plantxen ondoren txapa gainean berotzen zirenak etorri ziren. Behar-beharrezko arropak bakarrik lisatzen ziren, izararik-eta ez. Izarak zerezkoak. Kirrua.

14. Etxean sagardoa egin eta saldu

- **Erref:** OND-050/030
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 00:41:25. **Bukatu:** 00:42:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Sagardogintza

Laburpena:

Sagardoa egiten zuten etxean, dolarea zuten eta. Gero saldu. Sagar-klaseak. Sagardo-sagarra erabiltzen zen gehien.

15. Sagardoa egiten zuten; Eibarrera eta Bilbora saldu

- **Erref:** OND-050/031
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 00:42:32. **Bukatu:** 00:44:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Sagardogintza

Laburpena:

Sagardoa egiteko prozesua. Sagarrak ganbaran gordetzen zituzten. Handik dolarera bota. Haga batekin estutu eta handik tinara bota. Patsa ganaduei ematen zitzaien. Bitsa irten arte egon behar izaten zen bukoian. Sagardo-bukoiak Eibarrera eta Bilbora saltzen zituzten. Nahiko handiak izaten ziren. Gero botiletan sartzen hasi ziren. Eibarko emakume batek azukrea botatzeko eskatzen zien.

16. Umeei lo eragiteko kanta

- **Erref:** OND-050/037
- **Iraupena:** 0:00:20. **Hasi:** 00:47:40. **Bukatu:** 00:48:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak

Laburpena:

Umeei lo eragiteko kanta bat abesten du: "Abobatxoa lo egidazu...".

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-01-31

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com